# NUEVA ORDEN DE SUSTITUCIONES DOCENTES 2026
# 2026KO IRAKASLE ORDEZKAPENEN AGINDU BERRIA

| CASTELLANO | EUSKARA |
|---|---|
| La Orden de 11 de mayo de 2026 regula la selección y gestión del personal docente temporal en los centros públicos no universitarios de Euskadi. Este documento resume, las principales novedades para las personas candidatas a sustituciones. La Orden está en vigor desde el 18 de junio, salvo en aquellos apartados en los que se establece como excepción su aplicación con efectos 1 de septiembre de 2025. | 2026ko maiatzaren 11ko Aginduak Euskadiko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako aldi baterako irakasleen hautaketa eta kudeaketa arautzen ditu. Dokumentu honek ordezkapenetarako hautagaientzako berrikuntza nagusiak laburbiltzen ditu. Agindua 2026ko ekainaren 18an sartu zen indarrean, salbu eta Aginduak berak salbuespen gisa 2025eko irailaren 1etik aurrerako ondorioekin aplikatuko direla ezartzen dituen xedapenetan. |

## 01

### REBAREMACIÓN:

**¿Qué deben saber las personas candidatas?**

- Con carácter general, no se rebaremará a quienes, estando en listas, no hayan trabajado en centros públicos y enseñanzas regladas durante los cinco cursos anteriores al inicio del proceso.
- Quienes no sean incluidos en la rebaremación seguirán siendo personas candidatas a sustituciones y conservarán la puntuación otorgada en el último proceso en el que participaron, adaptada a la normativa vigente.

### BIRBAREMAZIOA:

**Zer jakin behar dute hautagaiek?**

- Oro har, ez dira birbarematuko zerrendetan egon arren prozesua hasi aurreko bost ikasturteetan ikastetxe publikoetan eta irakaskuntza arautuan lan egin ez duten pertsonak.
- Birbaremazioan sartzen ez diren pertsonek ordezkapenetarako hautagai izaten jarraituko dute, eta parte hartu zuten azken prozesuan lortutako puntuazioa mantenduko dute, indarreko araudira egokituta.

## 02

### SITUACIÓN PROTEGIDA: mayor protección durante determinadas circunstancias

- Se crea una situación específica para personas candidatas que se encuentren en supuestos especialmente protegidos.
- Entre otros casos, incluye incapacidad temporal derivada de accidente de trabajo o enfermedad profesional, riesgo durante el embarazo, maternidad o paternidad, adopción y acogimiento, cuidado de hijos o

### BABESTUTAKO EGOERA: babes handiagoa egoera jakin batzuetan

- Egoera berezi bat sortzen da babes berezia behar duten kasuetan dauden hautagaientzat.
- Besteak beste, honako kasu hauek jasotzen dira: lan-istripu edo lanbide-gaixotasunaren ondoriozko aldi baterako ezintasuna, haurdunaldiko arriskua, amatasuna edo aitatasuna, adopzioa eta harrera, 3 urtetik beherako seme-alaben zaintza,

| | | |
|---|---|---|
| | hijas menores de 3 años, situaciones acreditadas de violencia y supuestos equivalentes a servicios especiales.<br><br>• La persona candidata deberá solicitar el cambio de situación a través de la aplicación telemática Ordezkagunea y aportar la documentación acreditativa que corresponda.<br><br>• El tiempo en situación protegida podrá computar como tiempo de servicios a efectos de rebaremación conforme al sistema previsto en la Orden. | egiaztatutako indarkeria-egoerak eta zerbitzu berezien pareko egoerak.<br><br>• Hautagaiak egoera aldatzeko eskaera Ordezkagunea aplikazio telematikoaren bidez egin beharko du, eta dagokion egiaztagiria aurkeztu.<br><br>• Babestutako egoeran emandako denbora zerbitzu-denbora gisa zenbatu ahal izango da birbaremazioaren ondorioetarako, Aginduan aurreikusitako sistemaren arabera. |
| **03** | **CÓMPUTO DE SERVICIOS EN SITUACIÓN PROTEGIDA**<br><br>• La Orden concreta cómo se calcularán los servicios durante la situación protegida.<br><br>• Con carácter general, se tomará como referencia la media de puntos obtenida en el apartado de servicios por el personal sustituto que se encuentre en el mismo tramo de puntuación.<br><br>• Los tramos se organizan por niveles de puntuación: de 0 a 10 puntos, de 11 a 20, de 21 a 30, y así sucesivamente.<br><br>• En el caso de cuidado de hijos e hijas menores de 3 años, el cómputo exige que no se haya desempeñado actividad retribuida y que se solicite ante la delegación territorial correspondiente. | **BABESTUTAKO EGOERAKO ZERBITZUEN ZENBAKETA**<br><br>• Aginduak zehazten du nola kalkulatuko diren babestutako egoeran emandako zerbitzuak.<br><br>• Oro har, erreferentziatzat hartuko da puntuazio-tarte berean dagoen ordezko langileek zerbitzuen atalean lortutako puntuen batezbestekoa.<br><br>• Tarteak puntuazio-mailen arabera antolatzen dira: 0tik 10 puntura, 11tik 20ra, 21etik 30era, eta horrela hurrenez hurren.<br><br>• 3 urtetik beherako seme-alaben zaintzaren kasuan, zenbaketa egiteko beharrezkoa izango da jarduera ordaindurik ez egitea eta dagokion lurralde-ordezkaritzari eskatzea. |
| **04** | **PENALIZACIÓN TEMPORAL: consecuencias de determinadas renuncias o incumplimientos**<br><br>• La Orden incorpora una nueva situación laboral denominada penalización temporal.<br><br>• Se permite una única renuncia sin penalización a una adjudicación forzosa por curso escolar, siempre que no concurra causa de renuncia justificada.<br><br>• Una segunda renuncia a adjudicación forzosa en el mismo curso, así como cualquier renuncia a una adjudicación | **ALDI BATERAKO PENALIZAZIOA: uko egite edo ez-betetze jakin batzuen ondorioak**<br><br>• Aginduak aldi baterako penalizazioa izeneko lan-egoera berria jasotzen du.<br><br>• Ikasturte bakoitzean nahitaezko esleipen bati behin bakarrik uko egin ahal izango zaio penalizaziorik gabe, betiere uko egiteko arrazoi justifikaturik ez dagoenean.<br><br>• Ikasturte berean nahitaezko esleipen bati bigarrenez uko egiteak, bai eta borondatezko esleipen bati edozein uko |

| | | |
|---|---|---|
| | voluntaria, conllevará pasar a penalización temporal hasta el final de ese curso y del siguiente. | egiteak ere, aldi baterako penalizazioa ekarriko du ikasturte hori eta hurrengoa amaitu arte. |
| **05** | **DESVINCULACIÓN A LA PERSONA TITULAR Y DERECHO DE LA PERSONA SUSTITUTA A SEGUIR SUSTITUYENDO: más voluntariedad para la persona sustituta**<br><br>**Más flexibilidad y mayor seguridad para las personas sustitutas.**<br><br>• La nueva regulación refuerza la voluntariedad de la persona sustituta cuando se produce un inicio y fin de alguna contingencia que genera una sustitución e incluso cuando se producen cambios en la jornada del puesto que ocupa.<br><br>• Si ha finalizado el motive de la sustitución, pero la persona titular vuelve a generar una contingencia por la que haya que volver a sustituirla, la última persona que la ha sustituído ya no estará obligada a sustituirla, y será su derecho y voluntad hacerlo o no.<br><br>• Además, si la persona sustituida modifica su jornada, la persona sustituta podrá optar, en los supuestos previstos en la Orden, por continuar o no con la sustitución.<br><br>• La finalidad es evitar la obligación de estar ligada a la persona titular durante todo el curso escolar como consecuencia de altas y bajas de cualquier contingente, o que una modificación sobrevenida de la jornada imponga automáticamente una situación no elegida por quien está realizando la sustitución. | **PERSONA TITULARRAREKIKO DESLOTZEA ETA ORDEZKO PERTSONAK ORDEZKAPENAREKIN JARRAITZEKO DUEN ESKUBIDEA: borondatezkotasun handiagoa ordezkoarentzat**<br><br>**Malgutasun handiagoa eta segurtasun handiagoa ordezkoentzat.**<br><br>• Araudi berriak ordezko pertsonaren borondatezkotasuna indartzen du ordezkapena eragiten duen edozein kontingentziaren hasiera eta amaiera gertatzen denean, baita betetzen duen lanpostuaren lanaldian aldaketak ematen direnean ere.<br><br>• Ordezkapenaren arrazoia amaitu bada, baina titularrak berriro ere ordeztu beharra dakarren kontingentzia bat sortzen badu, azken aldiz ordezkatu duen pertsona ez da behartuta egongo berriro ere ordezkatzera; bere eskubidea eta borondatea izango da hori egitea edo ez.<br><br>• Gainera, ordeztutako pertsonak bere lanaldia aldatzen badu, ordezko pertsonak, Aginduan aurreikusitako kasuetan, ordezkapenarekin jarraitzea edo ez jarraitzea aukeratu ahal izango du.<br><br>• Helburua da ordezko pertsona ikasturte osoan titularrari lotuta egotera behartuta ez egotea, edozein kontingentziaren ondoriozko alta eta bajen eraginez, edota lanaldiaren gerora sortutako aldaketa batek ordezkapena egiten ari den pertsonari berak aukeratu ez duen egoera bat automatikoki ez ezartzea. |
| **06** | **IDONEIDAD EN PUESTOS ESPECIALES: tramitación más sencilla** | **EGOKITASUNA LANPOSTU BEREZIETAN: izapidetze errazagoa** |

| | | |
|---|---|---|
| | **Menos complejidad administrativa.**<br><br>• Se agiliza y simplifica el protocolo de actuación para determinar la idoneidad del profesorado interino en puestos con características especiales.<br><br>• La mejora afecta especialmente a los casos en los que la propia persona adjudicataria solicita la valoración.<br><br>• El objetivo es que la tramitación resulte más clara, rápida y proporcionada, manteniendo las garantías necesarias. | **Administrazio-konplexutasun txikiagoa.**<br><br>• Ezaugarri bereziak dituzten lanpostuetan bitarteko irakasleen egokitasuna zehazteko jarduketa-protokoloa arindu eta sinplifikatzen da.<br><br>• Hobekuntzak bereziki eragiten die esleipendunak berak balorazioa eskatzen duen kasuei.<br><br>• Helburua da izapidetzea argiagoa, azkarragoa eta proportzionatuagoa izatea, beharrezko bermeak mantenduta. |
| **07** | **MAYORES DE 55 AÑOS: medidas específicas favorables**<br><br>**Dirigido a personas con larga experiencia en el sistema.**<br><br>• La Orden contempla medidas específicas para personas candidatas mayores de 55 años que no hayan podido optar a ninguna plaza.<br><br>• Podrán beneficiarse quienes acrediten al menos 17 años de servicios y cumplan el resto de requisitos establecidos en la disposición adicional correspondiente.<br><br>• La finalidad es reconocer una trayectoria profesional prolongada y ofrecer condiciones específicas más favorables en los términos previstos por la Orden. | **55 URTETIK GORAKOAK: berariazko neurri onuragarriak**<br><br>**Sisteman esperientzia luzea duten pertsonei zuzenduta.**<br><br>• Aginduak berariazko neurriak jasotzen ditu 55 urtetik gorako hautagaientzat, baldin eta ezin izan badute lanposturik eskuratu.<br><br>• Onuradun izan ahal izango dira gutxienez 17 urteko zerbitzuak egiaztatzen dituztenak eta dagokion xedapen gehigarrian ezarritako gainerako baldintzak betetzen dituztenak.<br><br>• Helburua da ibilbide profesional luzea aitortzea eta Aginduan aurreikusitako baldintzetan berariazko baldintza onuragarriagoak eskaintzea. |
| **08** | **PUNTUACIÓN ADICIONAL: incentivo para determinados centros y puestos**<br><br>**Objetivo: favorecer la cobertura de plazas de especial dificultad.**<br><br>• Se establece puntuación adicional por servicios efectivos en centros o puestos especialmente señalados en el baremo.<br><br>• Incluye zonas de difícil adjudicación, centros con índice de complejidad educativa alto o muy alto y determinados puestos de Formación Profesional Básica cuando se cumplan las condiciones previstas. | **PUNTUAZIO GEHIGARRIA: zenbait ikastetxe eta lanpostutarako pizgarria**<br><br>**Helburua: zailtasun bereziko plazen estaldura sustatzea.**<br><br>• Baremoan bereziki adierazitako ikastetxe edo lanpostuetan emandako zerbitzu efektiboengatik puntuazio gehigarria ezartzen da.<br><br>• Barne hartzen ditu esleitzeko zailak diren eremuak, hezkuntza-konplexutasun handiko edo oso handiko ikastetxeak eta Oinarrizko Lanbide Heziketako zenbait |

| | | |
|---|---|---|
| | • La puntuación adicional exige servicios efectivos.<br><br>• Cuando en un mismo centro concurran varios motivos de puntuación adicional, solo se reconocerá una doble puntuación como máximo; no serán acumulativos entre sí.<br><br>• Las plazas o centros que generen puntuación adicional se identificarán en la adjudicación de comienzo de curso, en Ordezkagunea y en la web del Departamento.<br><br>• La puntuación adicional está en vigor desde el 18 de junio de 2026. | lanpostu, aurreikusitako baldintzak betetzen direnean.<br><br>• Puntuazio gehigarria lortzeko zerbitzu efektiboak behar dira.<br><br>• Ikastetxe berean puntuazio gehigarrirako arrazoi bat baino gehiago badaude, gehienez puntuazio bikoitza aitortuko da; ez dira elkarren artean metagarriak izango.<br><br>• Puntuazio gehigarria ematen duten plazak edo ikastetxeak ikasturte-hasierako esleipenean, Ordezkagunean eta Sailaren webgunean identifikatuko dira.<br><br>• Puntuazio gehigarria 2026ko ekainaren 18tik aurrera da aplikagarri. |
| **09** | **BAREMO Y TITULACIONES: actualización y simplificación**<br><br>**Sistema más actualizado y coherente con las necesidades actuales.**<br><br>• Se eliminan determinados apartados del baremo que se aplicaban únicamente a enseñanzas de Música, Arte Dramático y Danza.<br><br>• Las puntuaciones de las personas candidatas de esos niveles se adecuarán al Anexo I vigente.<br><br>• También se actualizan las tablas de titulaciones y especialidades, incorporando nuevas titulaciones que permiten el acceso a distintas especialidades. | **BAREMOA ETA TITULAZIOAK: eguneratzea eta sinplifikazioa**<br><br>**Sistema eguneratuagoa eta egungo beharretara egokituagoa.**<br><br>• Musika, Arte Dramatiko eta Dantzako irakaskuntzei soilik aplikatzen zitzaizkien baremoko zenbait atal ezabatzen dira.<br><br>• Maila horietako hautagaien puntuazioak indarrean dagoen I. eranskinera egokituko dira.<br><br>• Halaber, titulazioen eta espezialitateen taulak eguneratzen dira, espezialitate desberdinetara sartzeko aukera ematen duten titulazio berriak gehituta. |

| | |
|---|---|
| **Mensaje final: la nueva Orden busca proteger mejor a las personas candidatas, facilitar la cobertura de plazas, simplificar trámites y adaptar las listas de sustituciones a las necesidades actuales del sistema educativo vasco.** | **Azken mezua: Agindu berriaren helburua da hautagaiak hobeto babestea, plazen estaldura erraztea, izapideak sinplifikatzea eta ordezkapenen zerrendak Euskal Hezkuntza Sistemaren egungo beharretara egokitzea.** |